



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **IBARRAKO UDALAREN ETA HARITUZ TOLOSALDEKO BERTSOZALEEN ELKARGUNEA ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.**

Ibarrako udaletxean, 2023ko apirilaren 27an

### **ELKARTURIK**

**Alde batetik**, Igor Zapirain Lizarribar, Ibarrako Udaleko alkate-lehendakaria, Ibarrako Udaleko Idazkariak, Eider Esnaola Carrerak, lagunduta.

**Eta bestetik**, Beñat Iguaran Amondarain jauna, NAN 72465295T duena, Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkargunea Elkarteko lehendakaria. Elkartearen egoitza soziala: Tolosako Larramendi kalea, 7 behean duena; IFKa: G75083238.

### **ESKU HARTZEN DUTE**

**Lehenengoak**, Ibarrako Udalaren izenean eta ordezkaritza, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikulua xedaturikoaren arabera.

**Bigarrenak**, Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkargunea Elkartearen izenean eta ordezkaritza, lehendakari gisa, 2020ko irailaren 18ko zuzendaritza batzordeak hartutako erabakiaren arabera.

Bi aldeek Hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta ondorio horretarako

### **AZALDU DUTE**

I.- Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkargunea Elkarteak 2023ko apirilaren 25ean udal honetan aurkeztutako idatziaren bidez —sarrera erregistroko zenbakia 1169—, dirulaguntza proiektuen eta jardueren memoria aurkeztu zuela, Ibarrako Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrak xedatutakoarekin bat etorritik. Memoria honek gutxi gorabehera 48.083,61euroko aurrekontua du, dirulaguntza eskaeraren helburu diren ondorengo jarduerak gauzatu ahal izateko, eta laguntza hori hitzarmen honen bidez emango da. Jarduerak:

1. Kontratazioak
2. Transmisioa
3. Bilketa eta hedapena
4. Sustapena



**IBARRAKO UDALA**  
**(Gipuzkoa)**  
**Euskal Herria**

5. Ikerketa
6. Bestelakoak.

II.- Entitateak egunean dituela zerga-betebehar guztiak eta egunean dagoela Gizarte Segurantzarekin.

III.- Entitatea ez dagoela 38/2003 Legeak, azaroaren 7koak, dirulaguntzei buruzkoak, bere 13. artikuluko 2. eta 3. zatietan dirulaguntzak jasotzeko adierazitako debeku-ausaren baten pean.

IV.- Bere estatutuekin bat etorritik, entitate eskatzailearen xedea bat datorrela hitzarmen honen bidez emango den dirulaguntzaren xede eta helbururekin.

V.- Ibarra Udalaren 2023ko udal aurrekontuan, 1 10.335.00.481.12. 2023 partida agertzen dela, 2.000 euroko zenbatekoarekin, entitate eskatzailearen dirulaguntza izendunaren kontzeptuaren pean.

VI.- 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 25. artikuluan honela dioela: "Udalerrriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake.

Hain zuzen ere, Lege horren 25.2 artikulua, udalen eskumenen artean, eskumen hau jasotzen duela: **kulturaren sustapena**. Eskumen hau udalaren berezko eskumenen artean dago eta Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkargunea Elkartea-k Ibarra herrian euskararen normalizazio ahalbidetzea eta erabilgarritasuna sustatzea ditu helburu nagusi gisa eta Ibarra herria eskualde mailako euskalgintza proiektuan barneratuko du herritarren parte-hartzea eta genero berdintasunaren alde lan eginez komunikazio hedabide bezala.

Era berean, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, bere 17. artikuluan, udalerrien eskumen propioak zeintzuk diren aipatzen dit; horien artean 17.20 artikuluan **kultura sustatzeko eskumena** adierazten du eta 17.26 artikuluan aldiz **euskara sustatzeko politikak egiteko eskumena** adierazten da... Horretarako, euskal administrazio publikoek, koordinazioko eta lankidetzako, gizarte-ekimenaren sustapeneko eta baliabideen aprobetxamendu osoko, arrazional eta eraginkorreko printzipioak aplikatuz, egoki gertatzen denetan, gizarte-ekimen pribatuak garatzen dituen gaitasunak eta baliabideak aprobetxatzen ahaleginduko dira.

VII.- Hitzarmen hau ematen dela lege-arau hauen babesean: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra eta 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, hura garatzen duen Erregelamendua onartzen duena; eta Ibarra Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorra.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

VIII.- Aipatu dirulaguntza hau Ibarra udalak 2020ko otsailaren 18an ez ohiko udalbatzan onartutako Ibarra Udaleko dirulaguntza plan estrategikoan (2020-2023) jasota dago (GAO 38. zbk), dirulaguntza izendun moduan, eta beraz, ez da norgehiagoka prozesurik egingo dirulaguntza emateko.

IX.- 298/2019 alkate dekretuari jarraiki, dirulaguntzaren hitzarmena sinatzeko eta dirulaguntza emateko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzordea izango da.

X.- Hori dela eta, 2023ko apirilaren 25eko data duen 252/2022 Alkate dekretu bidez Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkargunea Elkarteari 2.000 euroko dirulaguntza emateko hitzarmena onartzea eta sinatzea erabaki zuen.

XI.- Aipatu dirulaguntza hau dirulaguntzen datu base nazionalean (BDNS) argitara emango da.

Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatzen dute, ondoren zehazten diren klausulak ezarriz.

## **KLAUSULAK**

### **Lehena.- Xedea.**

Hitzarmen honen helburua da Ibarra Udalaren eta HARITUZ TOLOSALDEKO BERTSOZALEEN ELKARGUNEA ELKARTEAREN (G20371456) arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea Ibarra udalerrriaren barruan, berau baita une honetan euskalgintza aktibatzekeo Ibarra dagoen eragile bakarra, eta ez dagoelako euskara erdigunean jarrita duen beste gizarte eragilerik Ibarra.

### **Bigarrena.- Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.**

Hitzarmen honen eremuan honako jarduera hauek sartzen dira:

1. Bilketa eta hedapena
2. Sustapena
3. Ikerketa.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

**Hirugarrena.- Diruz lagundutako jardueren finantzazioa.**

Ibarrako Udalak hartuko du parte hitzartutako jardueren finantzaketan dirulaguntza baten bidez. 2023ko ekitaldian, aurrekontu-baliabide horiek **2.000 euro**koak izango dira, 1 10.335.00.481.12. 2023 udal aurrekontuetako partidaren kargura; dena dela, diruz lagundutako elkarteak beste erakunde batzuen dirulaguntzak ere jaso ditzake.

Entitate onuradunak aurkeztu duen diruz lagundu beharreko jardueraren aurrekontua, edo hari aurkeztu ondoren egindako aldaketak, erreferentzia gisa erabiliko dira dirulaguntzaren zenbatekoaren azken zehaztapena egiteko, zenbateko hori proiektu edo jardueraren azken kostuaren portzentaje bat bezala kalkulatu da eta inoiz ezingo du emandako zenbatekoa gainditu. Kasu horretan, Ibarrako udalak egindako balizko finantzazioaren soberakina kalkulatu da ekarpen horrek kostu osoaren aldean duen portzentajea erreferentzia gisa harturik.

Dirulaguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden beste dirulaguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakena.

Gerta daitezkeen aldi bereko finantzaketa-kasuak honako baldintza hauek bete beharra daukate:

a) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.

b) Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie dirulaguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan.

Hala ere, baldin eta Ibarrako udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako dirulaguntzaren mugaraino.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Dirulaguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.

**Laugarrena.- Indarraldia.**

Hitzarmen honek 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak. Emandako dirulaguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio Euskara eta Hezkuntza departamentuari, Ibarra Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrak xedatutakoaren arabera III. kapituluan

**Bosgarrena.- Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.**

Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Ibarra Udalaren ordenantza orokorraren aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta, deialdian, hitzarmenean edo ebazpenean espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Bakar-bakarrik onartuko dira dirulaguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.

Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak aurkeztu behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, espresuki justifikatu beharko dira, memoria baten bidez, erabili diren irizpideak.

**Seigarrena.- Dirulaguntzaren justifikazioa.**

Dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintza eta helburuak betetzearen eta lortzearen justifikazioa egingo da DLOaren 30. artikuluan, DLOaren Araudian eta Ibarra Udalaren IIII kapituluan dirulaguntzen ordenantza orokorraren aurreikusita dagoenaren arabera.



**IBARRAKO UDALA**  
**(Gipuzkoa)**  
**Euskal Herria**

Dirulaguntza justifikatzeko, hitzarmenean jasota dauden lerro bakoitzari lotutako justifikazio ekonomikoaren datuak aurkeztu beharko dira lerroka eta gastu diruz lagungarriaren adina, horretarako, jarduerak bere osotasunean dituen gastuen zehaztasuna, eta Ibarra udalean jarduera horrek duen %aren arteko erlazioa frogatuta geratu beharko da.

Dirulaguntza justifikatuko da «justifikatzeko kontua ordainagiriak aurkeztuta» izeneko modalitateaz, oro har, honako dokumentazio hau duela:

- a) Jarduera-memoria bat, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko. Memoria horretan adieraziko da zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren, eta, ahal den neurrian, datu guztiak sexuen arabera banatuta aurkeztuko dira.
- b) Egindako jardueren kostua justifikatzeko 1. eranskina behar den bezala betea.

**Zazpigarrena.- Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea.**

Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 31n amaituko da.

**Zortzigarrena.- Ordaintzeko prozedura.**

Dirulaguntzaren ordainketa egingo da, oro har, dirulaguntzaren onuradunak justifikazioa aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren, beti ere jarduerarengatik eskumenak dituen departamentuak aldeko txostena egin ondoren.

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da: lehena organo eskudunaren erabakiaren jakinarazpenarekin batera eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak aurkeztutakoan, honen zenbatekoa dirulaguntzaren % 70a izango da, eta gainontzeko % 30a, egindako gastua justifikatzen duen kontua aurkeztutakoan.

Betebeharreko baldintza izango da Ibarra Udalak aurretik emandako dirulaguntzen justifikazio dokumentazio osoa aurkeztu izana, beste dirulaguntza berri batean parte hartu ahal izateko.

Horretaz gain, ikusirik COVID-19k sortutako aldaketak euskara arloko ekimenetan, behin kitapena egiten denean jasotako aurrekontutik zein gastu egin diren eta zein ez zehaztuko du interesatuak dagokion doikuntza egin ahal izateko.

Ordainketak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari jakinaraziko zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.



**IBARRAKO UDALA**  
**(Gipuzkoa)**  
**Euskal Herria**

**Bederatzigarrena.- Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.**

Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baitira, esaterako, karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan Ibarra udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea, edo hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzia berdinarekin.

Dirulaguntza jasotzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du Ibarra Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.

**Hamargarrena.-Euskararen erabilpena.**

Ahozko informazioa (megafonia...) eta idatzizkoa (kartelak, oharra...) euskaraz edo ele bitan egingo dira, eta azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda, Ibarra Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko udal ordenantzak xedatzen duen bezala. Euskaraz egingo dira ekintzaren izaerak edo hartzaileen berezitasunek hala eskatzen badute.

**Hamaikagarrena.- Genero berdintasuna.**

Dirulaguntzaren onuradunak ezingo dute inolako laguntzarik jaso honako kasuetan:

- Pertsona fisiko edo juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak badira.
- Sexu edota hizkuntza sexista erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.
- Sexuaren ziozko zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko Lege Organikoan xedatutako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.
- Aukeratzeko prozeduran edo funtzionamenduan sexuaren ziozko bereizketaren bat egiten duten elkarteak.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

**Hamabigarrena.- Iraungitzea.**

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

**Hamahirugarrena.- Kontrol eta jarraipena.**

Hitzarmen honen finantza kontrola pertsona edo entitate onuradunei egingo zaie, edo hala badagokio, erakunde kolaboratzaileei. Finantza kontrola Ibarra Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 48. eta 49. artikuluetan xedatutakoari jarraiki egingo da.

Hitzarmen honen onuradunak behartuta daude kontrol finantzarioa egiten duten funtzionarioei lankidetzara eskaintzera eta horretarako eskatzen zaizkien agiriak eta beharrezko informazioa eskuratuko diete.

Jarraipen eta kontrol prozesu horretan hitzarmen honetako baldintzak ez direla betetzen ikusten bada, beharrezko neurriak hartuko dira diru itzulketa egin dadin, eta kasua bada, emandako diru-laguntza kobratzeko eskubidea galduko da.

**Hamalagarrena.- Lan eta zerga legeria.**

Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienean.

**Hamabosgarrena.- Izaera administratiboa.**

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta bere kasuan aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

**Hamaseigarrena.- Erantzukizunpeko adierazpena.**

Ibarra Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 6 artikuluan xedatutakoaren arabera, DLOren 13.2 artikuluan ezarritako onuradun izateko debekuetan erortzen ez delako egiaztapena egingo da notario baten edo funtzionario publiko baten aurreko erantzukizunpeko adierazpen baten bidez.

**Hamazazpigarrena.- Gainerako legeria.**

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua



**IBARRAKO UDALA**  
**(Gipuzkoa)**  
**Euskal Herria**

onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Ibarra Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorra.

**Hemezortzigarrena.- Izaera pertsonaleko datuak.**

Izaera pertsonaleko datuak arautzen duen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromiso hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa, aplikatu daitekeen guztian, beteko dutela.

**Hemeretzigarrena.- Baimentzea.**

Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Ibarra Udalari, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik zuzenean eskura ditzan hitzarmen honen bitartez eskatutako dirulaguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak.

**Hogeigarrena.- Gardentasun Ataria.**

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki taulan.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmenaren hiru ale izenpetzen dituzte bi aldeek, nire aurrean eta goiburuan aipatutako toki eta egunean; Idazkaria naizen honek fede ematen dut

**ALKATEA**

**HARITUZ TOLOSALDEKO BERTSOZALEEN  
ELKARGUNEA ELKARTEA**

**Igor Zapirain Lizarribar**

**Beñat Iguaran Amondarain**



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

**1.ERANSKINA**

**JUSTIFIKAZIO EKONOMIKORAKO EREDUA**

**A) SARREREN JUSTIFIKAZIOA**

Azalpena	kopurua
<b>SARRERAK:</b>	
Proiektuaren berezko diru -sarrerak: ( Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Erakunde pribatuen dirulaguntzak: ( Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Ibarrako Udala dirulaguntzak: ( Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza ( Onartu den guztia ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Eusko Jaurlaritzaren laguntza ( Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Beste erakunde publiko baten laguntza ( Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Beste batzu: _	€
<b>GUZTIRA SARRERAK</b>	€
<b>SARRERA AURREIKUSPEN HONETATIK ZE KOPURU DAGOEN ORAINDIK JASOTZEKO</b>	€
- Ibarrako udala	
- Gainontzekoak	

**B) GASTUEN JUSTIFIKAZIOA**

Taula orokorra ( Adibidea)

Azalpena	kopurua
<b>GASTUAK DENERA, MOTAREN ARABERA</b>	



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Zeharkako gastuak	
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	

**Justifikatutako gastuak zehaztuta ( ADIBIDEA)**

AGIRI MOTA TIPO DOCUMENT O	ZK .	DATA	IGORLEA EDO JASOTZAILE A EMISOR O RECEPTOR	CIF / DNI	KONTZEPTUA	BEZ-a €	IRPF %	€
<b>GUZTIRA</b>								

**ZEHARKAKO GASTUEN MEMORIA**

**Jaso bakoitzaren kopurua eta aurreko ataletan ezin sartu izanaren zergatia:**

**TAULAREN ARGIBIDEAK**

Jarduerak eragindako gastuen zerranda sailkatua betetzerakoan honako datu hauek zehaztu beharko dira:

1. Mota: Agiri mota: Nomina, Asistentzia ordainagiria, Beste administrazioko erreziboak, Faktura, gastu tiketa ( 20 euro arte), elkarteko tiketa, edo kilometrajea.
2. Zenbakia: Faktura edo tiketa bada
3. Data: kasu guztietan
4. Igorlea jarri behar da: Faktura, errezibo eta Tiketetan, horiek burutzen dituena, eta Hartzailea jarri behar da nomina eta ordainagirietan, lana edo prestazioa burutu duen pertsona.



## IBARRAKO UDALA

(Gipuzkoa)

Euskal Herria

5. IFK edo NAN.
6. Kontzeptua: gastuaren objektua
7. BEZ-a: Faktura eta Tiketen kasuan.
8. PFEZa: Nomina, ordainagiri kasuan eta autonomoen fakturretan.
9. €: Dirulaguntza -eskatzaileak ordaindu behar izan duena.
10. Guztira: Kontzeptu guztien batuketa

Aipatutako erakundearen ordezkari legala naizen aldetik, honako hau

### Adierazten dut:

1. Eranskin honetan jasotako datuak egiazkoak direla, bertan jasotako ordainketak eginda daudela, deialdi honetako 13. Artikuluak ezarritako betebeharrak betetzen ditudala eta, nolana ere, prest nagoela Ibarra Udalaren esku jartzeko jasotako dirulaguntza behar bezala erabili dela egiaztatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak.

2. Elkartek diruz lagundutako jarduerak iraun duten bitartean erantzunkizun zibileko aseguru-poliza indarrean izan duela.

**Arduradunaren sinadura eta erakundearen zigilua :**

XXXXXXXXXXXXXX

**Izena Abizenak.....XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX.....**

Lekua eta data: .....n, 2021eko .....ren .....an

### LEGE-OHARRA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako dirulaguntzak eta deialdi honekin zer ikusia duten beste edozein prozedura edo espediente administratiboa kudeatzea izango da, eta baita deialdi honetara aurkezten diren pertsonen deialdiaren garapenari buruz informatzea ere. Fitxategi honen arduraduna Ibarra Udala da. Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatze eskubideak erabiltzeko Kultura Sailera jo behar da, helbide honetara: Euskal Herria kalea 44, 20400-Ibarra.

